

XEDAPEN OROKORRAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

2054

53/2012 DEKRETUA, apirilaren 17koa, Familien Euskal Kontseiluarena.

Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen IV. Tituluan erakunde-antolaketa lantzen da. Lege horren helburua familia-politika integral baterako esparrua eta oinarriak ezartzea da, betiere familiaren eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera zuzendurik. Gauzak horrela, aipatutako IV. tituluaren I. kapituluaren Familiaren Euskal Kontseilua eta haren batzordeak sortzen dira.

Lege horrek Familiaren Euskal Kontseilua eratzen du familia-arloari dagokionez Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen arteko koordinazioa eta lankidetzaren antolatzeko organo gisa, baita administrazio publikoen eremutik kanpoko erakundearen eta pertsonen benetako parte-hartzea gauzatzeko organo gisa ere.

Halaber, Familiaren Erakunde arteko Batzordea, Familiaren Sail arteko Batzordea eta Familiaren Batzorde Iraunkorra Familiaren Euskal Kontseiluaren barruan dauden batzordeak dira legearen arabera. Lehen Eusko Jaurlaritzaren sailek familia-arloan egindako jardunak koordinatzeko organo gisa eratzen da, bigarrena herri-administrazioek familia-arloan lankidetzaren jarduteko, koordinatzeko eta parte hartzeko organo nagusia da, eta hirugarrena familiei babesa, arreta eta laguntza ematen diharduten gizarte-agenteek parte hartzeko foro espezifikoa da.

Familiaren Erakunde arteko Batzordearen nahiz Familiaren Erakunde Iraunkorraren aurrekaria Euskal Autonomia Erkidegoko familia-arloko erakunde-antolaketa arautzen duen 2003ko irailaren 17ko Agindua (Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena) da. Lege horren bitartez ezartzen da familia-arloko erakunde-antolaketa Familiaren Batzorde Iraunkor Sektorialak eta Familiaren Erakunde arteko Batzordeak osatzen dutela. Lehenengo Batzordea Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluan eratu zen.

Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak Familiaren Euskal Kontseiluan biltzen ditu bi batzordeak. Era berean, Legearen Xedapen iragankor bakarrean eranstean da ordura arte Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluari atxikita zeuden Familiaren Erakunde arteko Batzordea eta Familiaren Batzorde Iraunkor Sektoriala (aurrerantzean Familiaren Batzorde Iraunkorra) indarrean jartzen direnean Familiaren Euskal Kontseiluan bilduko direla; hori guztia bi Batzordeetarako arauz ezartzen diren eginkizunak eta osaera aparte utzi gabe, legean ematen zaien izaeraren arabera.

Ildo horretatik, Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen bigarren Xedapen gehigarriaren arabera, Eusko Jaurlaritzak arautu beharko ditu Familiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-araubidea, eta hori bete nahi du Dekretu honek.

Kontuan izan behar dugu Familiaren Euskal Kontseilua batez ere organo aholku-emaila gisa eta familia-eremuko gizarte-agenteek familiei eragiten dieten politika publikoaren diseinuan duten parte-hartzea eta lankidetzaren bideratzeko gune gisa eratu dela. Horregatik, gobernantza partizipatiboa garatzeko, funtsezkoa da ekimen sozialaren azterketak eta ekarpenak jasotzea eta kontuan hartzea eta inplikaturako alderdi guztien arteko elkarriketa arina eta aberasgarria izatea.

Azkenik, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 22ko 42/2011 Dekretuak agindutako esleipenak kontuan hartuz, Familia eta Komunitate

Politikarako Zuzendaritzari dagokio Familiaren Euskal Kontseiluari eta haren batzordeei babes eta laguntza ematea.

Hori guztia kontuan hartuta, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari jarraiki, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko apirilaren 17n egindako bilkuran alde aurretik eztabaidatu eta onartu eta gero, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDEA, IZAERA ETA OSAERA

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea Familiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak, osaera eta funtzionamendura araubidea arautzea da, Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen IV. tituluaren I. kapitulua aplikatuz eta garatuz.

2. artikulua.– Izaera eta helburuak.

1.– Familiaren Euskal Kontseilua kontsulta-organoa da, eta bertan Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Udalak eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak daude ordezkaturik. Aipaturiko hiru erakunde-mailen arteko beharrezko koordinazioa eta lankidetzaren antolatuko duen organoa izango da, baita administrazio publikoetatik kanpo dauden erakunde eta pertsonen partaidetza gauzatuko duen organoa ere.

2.– Familiaren Euskal Kontseilua familia-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailari atxikita dago (Sailaren egitura organikoan sartuta egon gabe), eta Sail horren bulegoetan du egoitza, Gasteizen.

Dena dela, Familiaren Euskal Kontseiluak Autonomia Erkidegoko beste edozein lekutan egin ahal izango ditu bilkurak.

3. artikulua.– Familiaren Euskal Kontseiluaren organoak.

Familiaren Euskal Kontseilua osatzen duten organoak honako hauek dira:

a) Kide anitzeko organoak:

Osoko Bilkura.

Familiaren Sail arteko Batzordea.

Familiaren Erakunde arteko Batzordea.

Familiaren Batzorde Iraunkorra.

b) Pertsona bakarreko organoak:

Presidentea.

Presidenteordea.

Idazkaria.

II. KAPITULUA

OSOKO BILKURA

4. artikulua.– Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren eginkizunak.

Honako eginkizun hauek dagozkio Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurari:

a) Lege-aurreproiektuei, dekretu-proiektuei eta familia-arloko araubideei buruzko txostena egitea.

b) Familiei laguntzeko erakunde arteko planen proposamenak aztertzea.

c) Familiei laguntzeko erakunde arteko planen betetze-mailari buruzko irizpena ematea.

d) Aholkularitza ematea eta Eusko Jaurlaritzan eta gainerako euskal administrazio publikoetan aurkeztea familia-politikari eragiten dion gai orori buruzko proposamenak, ekimenak eta gomendioak.

e) Eusko Jaurlaritzak eta gainerako euskal administrazio publikoek familia-politikari buruz gauzatzen dituzten ekimenen eta jardunen berri izatea eta horiei jarraipena egitea.

f) Familia-arloan esku hartzen duten agenteen iradokizunak, informazioa eta proposamenak jasotzea, eta haiei ere ematea.

g) Aztertzeko utzi dizkioten kontsultei erantzutea, betiere kontsulta horiek Familiaren Euskal Kontseiluaren helburuekin lotuta badaude.

h) Familia-politikari eragiten dieten gaiei buruzko azterlanak, ikerketak eta argitalpenak ez ezik jardunaldiak eta mintegiak ere egin daitezzen proposatzea.

i) Familiaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendu-araubidea egitea.

j) Indarreko legeriak esleitzen dion oro.

5. artikulua.– Osoko Bilkuraren osaera.

1.– Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran honako hauek daude ordezkatura:

a) Eusko Jaurlaritza.

b) Foru Aldundiak.

c) Udalak.

d) Familien interesak ordezkatzeko edo defendatzeko dituzten erakundeak.

e) Enpresa-erakundeak.

f) Erakunde sindikalak.

g) Kooperatiba-erakundeak.

h) Gizarte-zerbitzuen eremuan diharduten profesionalen erakundeak.

2.– Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkura hogeita hamabi kidek osatzen dute; erdiak Administrazio Publikoak dira, eta beste erdiak aurreko ataleko d), e), f), g) eta h) letretan aipatu diren erakundeetakoak.

3.– Honako hauek dira Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideak:

A) Administrazio Publikoen aldetik:

- a) Familia-arloan eskumena duen Saileko sailburua; presidente gisa jardungo du.
- b) Familia-arloan eskumena duen sailburuordea; presidenteorde gisa jardungo du.
- c) Familia-arloan eskumena duen zuzendaria.
- d) Osasunaren eta kontsumoaren arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- e) Hezkuntzaren, unibertsitateen eta ikerketaren arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- f) Etxebizitzaren, herri-lanen eta garraioen arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- g) Kulturaren arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- h) Enpleguaren eta gizarte-gaien arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- i) Ekonomiaren eta ogasunaren arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- j) Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea ordezkatu duen kide bat.
- k) Foru Aldundi bakoitza ordezkatu duen kide bat.
- l) Euskal Autonomia Erkidegoko Udalak ordezkatu dituzten hiru kide.

B) Familien, enpresen, sindikatuen, kooperatiben eta profesionalen eremuko erakunde aldetik:

a) Elkarte-mugimendua ordezkatzuz, hamabi kide, familien interesak Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkatu edo defendatu dituztenak, honako irizpide hauen arabera:

Familia-eremuko federazioen edo elkarten hiru ordezkari.

Guraso bakarreko familien federazioen edo elkarten ordezkari bat.

Familia ugarien federazioen edo elkarten ordezkari bat.

Alargunen federazioen edo elkarten ordezkari bat.

Bananduen, dibortziatuen eta/edo berregindakoen federazioen edo elkarten ordezkari bat.

Desgaitasuna duten pertsonen edo pertsona horien ahaideen federazioen edo elkarten ordezkari bat.

Familia etorkinen federazioen edo elkarten ordezkari bat.

Familia homoparentalen federazioen edo elkarten ordezkari bat.

Familia hartzaileen edo adopziozko familien federazioen edo elkarten ordezkari bat.

Haurren eskubideak sustatzeko eta babesteko erakunde federazioen edo elkarten ordezkari bat.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen erakunde-ordezkaritza duten enpresa-erakundeak ordezkatuko dituen kide bat.

c) Kide bat Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ordezkaritza handiena duten erakunde eta konfederazio sindikalak, eta langileen delegatuen, enpresa-batzordeko kideen eta administrazio publikoen organoetako kideen % 10 edo gehiago lortu duten sindikatuak ordezkatuz.

d) Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa ordezkatuko duen kide bat.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-laneko diplomadunen eta gizarte-hezitzaileen Elkargo Ofizialak ordezkatuko dituen kide bat.

C) Idazkaria; hitza izango du, baina botorik ez.

6. artikulua.– Familiaren Euskal Kontseiluaren presidentea.

1.– Familia-arloan eskumena duen sailburua izango da Familiaren Euskal Kontseiluaren eta Osoko Bilkuraren presidentea.

2.– Familiaren Euskal Kontseiluaren presidentek honako eskumen hauek ditu esleituta:

a) Familiaren Euskal Kontseiluaren ordezkaritza izatea.

b) Familiaren Euskal Kontseiluaren jardunak bideratzea, sustatzea eta koordinatzea.

c) Familiaren Euskal Kontseiluaren izenean erakundeetara, organismoetara, entitateetara, elkarteetara, agintariengana eta partikularrengana zuzentzea.

d) Familiaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendu-araubidea betetzea eta betearaztea, eta Osoko Bilkurari interpreta dezan proposatzea zalantzazko kasuetan, eta txerta dezan adierazi gabekoetan.

e) Osoko Bilkurarako deialdia egitea eta bilkura horiek zuzentzea, bilkurak behar bezala egiteko jarraibide orokorrak lantzea, eta eztabaidak moderatzea.

f) Osoko Bilkuren gai-zerrenda ezartzea.

g) Osoko Bilkuran hartutako erabakien aktak eta egiaztapenak ikus-onestea, erabakien igorpena eta argitalpena agintzea, eta bete daitezzen xedatzea.

h) Berdinketen kasuan, bere kalitateko botoarekin erabakitzea.

i) Presidente izateagatik dagozkion eginkizun guztiak.

7. artikulua.– Familiaren Euskal Kontseiluaren presidenteordea.

1.– Familia-arloan eskumena duen sailburuordea izango da Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren presidenteordea eta Familiaren Erakunde arteko Batzordearen presidentea.

2.– Presidenteordeak presidentek eskuordetutako eginkizunak eta presidenteorde izateagatik dagozkionak beteko ditu.

3.– Presidenterik ez badago, hura ez bada bertaratu edo gaixorik badago, bere eginkizunak presidenteordeak beteko ditu.

8. artikulua.– Familiaren Euskal Kontseiluaren idazkaria.

Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren idazkariak honako eskumen hauek ditu esleituta:

- a) Presidenteak aginduta, bileretarako deialdia egitea.
- b) Gai-zerrendan sartutako gaiei buruzko dokumentu guztiak Familiaren Euskal Kontseiluko kideei eskuratzea.
- c) Osoko Bilkuretara joatea eta horien aktak egitea, eta hartzen diren erabakiak bideratzea.
- d) Kideek zein hirugarren batzuek Familiaren Euskal Kontseiluari aurkeztu nahi dizkioten gai, txosten, proposamen edo dokumentu guztiak biltzea, antolatzea eta prestatzea, eta guztiak behar bezala bideratzea.
- e) Bidezkoak diren pertsoneri edo erakundeei Familiaren Euskal Kontseiluak sortzen duen edo eskuragarri duen informazioa helaraztea.
- f) Presidentearen oniritziarekin, kontsulten, irizpenen, akten eta onartutako erabakien ziurtagiriak ematea, egiaztapena dagokion aktaren onarpenaren aurrekoa dela esanbidez jasoaraziz, hala badagokio.

Presidenteak agintzen dizkion edo bere karguari datxezkion kudeaketako eta koordinazioko zeregin guztiak betetzea.

III. KAPITULUA

FAMILIAREN SAIL ARTEKO BATZORDEA

9. artikulua.– Izaera.

Familiaren Sail arteko Batzordea Eusko Jaurlaritzaren sailtako familia-arloko jardunak koordinatzeko organoa da.

10. artikulua.– Eginkizunak.

- a) Eusko Jaurlaritzak familia-arloan dituen helburuak proposatzea eta betetzea.
- b) Eusko Jaurlaritzaren Sailek familia-arloan gauzatzen duten jarduera koordinatzea.

11. artikulua.– Osaera.

Honako hauek dira Familiaren Sail arteko Batzordeko kideak:

- a) Familia-arloan eskumena duen zuzendaria; presidente gisa jardungo du.
- b) Enpleguaren eta gizarte-gaien arloan eskumena duen Saila ordezkatzeko duen kide bat; presidenteorde gisa jardungo du.
- c) Osasunaren eta kontsumoaren arloan eskumena duen Saila ordezkatzeko duen kide bat.
- d) Hezkuntzaren, unibertsitateen eta ikerketaren arloan eskumena duen Saila ordezkatzeko duen kide bat.
- e) Etxebizitzaren, herri-lanen eta garraioen arloan eskumena duen Saila ordezkatzeko duen kide bat.

- f) Kulturaren arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- g) Ekonomiaren eta ogasunaren arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- h) Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeordezkatu duen kide bat.
- i) Idazkaria; hitza izango du, baina botorik ez.

12. artikulua.– Familiaren Sail arteko Batzordearen presidentea, presidenteordea eta idazkaria.

1.– Familiaren Sail arteko Batzordeari dagokionez, presidenteak eta presidenteordeak 6. artikulua 2. atalean eta 7. artikulua 2. eta 3. ataletan Familiaren Euskal Kontseiluaren presidentearantz eta presidenteordearantz, hurrenez hurren, aurreikusten diren eginkizun berak izango dituzte.

2.– Familiaren Euskal Kontseiluaren idazkaria izango da Batzorde honetako idazkaria ere, eta Familiaren Sail arteko Batzordeari dagokionez, Familiaren Euskal Kontseiluaren idazkariarantz 8. artikuluan aurreikusten diren eginkizun berak izango ditu.

IV. KAPITULUA

FAMILIAREN ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA

13. artikulua.– Izaera.

Familiaren Erakunde arteko Batzordea familia-arloan jarduten duten administrazio publikoekin lankidetzan jarduteko, parte hartzeko eta haiek koordinatzeko goreneko organoa da.

14. artikulua.– Eginkizunak.

a) Administrazio publikoen koordinazioa bermatzea Familiei Laguntzeko Legea aplikatzearen ondoriozko jardunei dagokienez.

b) Administrazio publikoen koordinazioa bermatzea Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana aplikatzearen ondoriozko jardunei dagokienez.

c) Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana egiteko jarraibideak proposatzea.

d) Familiei laguntzeko erakunde arteko Planari jarraipena egitea, baita Plan horren emaitzen ebaluazioa ere, eta, hala badagokio, egokitzat hartzen diren egokitzapenak eta aldaketak proposatuz.

e) Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana behar bezala egikaritzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzaten proposatzea euskal administrazio publikoei.

f) Familiei laguntzeko Erakunde arteko Planean aurreikusitako esku-hartzeen eta euskal administrazio publikoen beste plan batzuetan bilduta dauden eta gai horretan garrantzi berezia izan dezaketen esku-hartzeen arteko koordinazio egokia sustatzea.

g) Familiaren Batzordea Iraunkorrak euskal administrazio publikoei egiten dizkien proposamenak, ekimenak eta gomendioak jasotzea, aztertzea, balioestea eta Eusko Jaurlaritzara eta gainerako euskal administrazio publikoetara bidaltzea.

15. artikulua.– Osaera.

Honako hauek dira Familiaren Erakunde arteko Batzordeko kideak:

- a) Familia-arloan eskumena duen sailburuordea; presidente gisa jardungo du.
- b) Familia-arloan eskumena duen zuzendaria; presidenteorde gisa jardungo du.
- c) Osasunaren eta kontsumoaren arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- d) Hezkuntzaren, unibertsitateen eta ikerketaren arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- e) Etxebizitzaren, herri-lanen eta garraioen arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- f) Ekonomiaren eta ogasunaren arloan eskumena duen Saila ordezkatu duen kide bat.
- g) Foru Aldundi bakoitza ordezkatu duen kide bat.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoko Udalak ordezkatu dituzten hiru kide.
- i) Idazkaria; hitza izango du, baina botorik ez.

16. artikulua.– Familiaren Erakunde arteko Batzordearen presidentea, presidenteordea eta idazkaria.

1.– Familiaren Erakunde arteko Batzordeari dagokionez, presidenteak eta presidenteordeak 6. artikuluan 2. atalean eta 7. artikuluan 2. eta 3. ataletan Familiaren Euskal Kontseiluaren presidentearantzat eta presidenteordearantzat, hurrenez hurren, aurreikusten diren eginkizun berak izango dituzte.

2.– Familiaren Euskal Kontseiluaren idazkaria izango da Batzorde honetako idazkaria ere, eta Familiaren Erakunde arteko Batzordeari dagokionez, Familiaren Euskal Kontseiluaren idazkariarantzat 8. artikuluan aurreikusten diren eginkizun berak izango ditu.

V. KAPITULUA

FAMILIAREN BATZORDE IRAUNKORRA

17. artikulua.– Izaera.

Familiaren Batzorde Iraunkorra familiei babesa, arreta eta laguntza ematen diharduten gizarte-agenteei parte hartzeko foro espezifiko da

18. artikulua.– Eginkizunak.

Familiaren Batzorde Iraunkorraren eginkizuna da Eusko Jaurlaritzak eta familiei babesa, arreta eta laguntza ematen inplikaturik dauden gizarte-agenteei familia-arloko etengabeko elkarrizketa izatea.

Aurrekoa garatuz, honako hau dagokio:

a) Aholkularitza ematea eta Eusko Jaurlaritzan eta gainerako euskal administrazio publikoetan aurkeztea, Familiaren Erakunde arteko Batzordearen bitartez, familia-politikari eragiten dion gai orori buruzko proposamenak, ekimenak eta gomendioak.

b) Familia-arloan esku hartzen duten agenteen iradokizunak, informazioa eta proposamenak jasotzea, eta haiei ere ematea.

c) Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran aurkeztea familia-politikari eragiten dieten gaiei buruzko azterlanak, ikerketak eta argitalpenak ez ezik jardunaldiak eta mintegiak ere (Osoko Bilkuraren ustez derrigorrez egin behar direnak).

d) Osoko Bilkurak esleitzen dion beste edozein.

19. artikulua.– Osaera.

Honako hauek dira Familiaren Batzorde Iraunkorreko kideak:

a) Familia-arloan eskumena duen zuzendaria; presidente gisa jardungo du.

b) Familia-arloan eskumena duen Zuzendaritzako teknikaria; presidenteorde gisa jardungo du.

c) Elkartze-mugimenduaren ordezkariak, Osoko Bilkuran daudenak.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen erakunde-ordezkaritza duten enpresa-erakundeak ordezkatzeko dituzten lau kide.

e) Lau kide Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ordezkaritza handiena duten erakunde eta konfederazio sindikalak eta langileen delegatuen, enpresa-batzordeko kideen eta administrazio publikoen organoetako kideen % 10 edo gehiago lortu dutenak ordezkatzuz, guztiak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremukoak izango dira.

f) Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren ordezkari izango den kide bat.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-laneko diplomatuen elkargo ofizialak ordezkatzeko dituen kide bat.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-hezitzaileen elkargo ofizialak ordezkatzeko dituen kide bat.

i) Idazkaria; hitza izango du, baina botorik ez.

20. artikulua.– Familiaren Batzorde Iraunkorraren presidentea, presidenteordea eta idazkaria.

1.– Familiaren Batzorde Iraunkorrari dagokionez, presidenteak eta presidenteordeak 6. artikulua 2. atalean eta 7. artikulua 2. eta 3. ataletan Familiaren Euskal Kontseiluaren presidentearantzat eta presidenteordearentzat, hurrenez hurren, aurreikusten diren eginkizun berak izango dituzte.

2.– Familiaren Euskal Kontseiluaren idazkaria izango da Batzorde honetako idazkaria ere, eta Familiaren Batzorde Iraunkorrari dagokionez, Familiaren Euskal Kontseiluaren idazkariarentzat 8. artikuluan aurreikusten diren eginkizun berak izango ditu.

VI. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDU ETA ANTOLAKETA ARAUAK

21. artikulua.– Funtzionamendua.

1.– Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkura urtean bi aldiz bilduko da ohiko gisa, eta ezohiko bilera egingo du presidenteak bere ekimenez erabakitzen badu edo kideen gutxienez heren batek eskatzen badu.

2.– Batzordeak ohiko bilera egingo du urtean bitan, eta, salbuespen gisa, presidenteak bere ekimenez egiten badu deialdia, edo kideen gutxienez heren batek eskatzen badu.

3.– Osoko Bilkuraren eta batzordeen bileretan izen handiko adituek parte hartu ahal izango dute; hitza izango dute baina botorik ez. Aditu horiek presidenteak izendatuko ditu eta kasu bakoitzean gai jakin batzuetarako deituko ditu.

4.– Osoko Bilkurak eta batzordeek erabaki ahal izango dute beren eginkizunak hobeto bete ahal izateko egokitzat hartzen dituzten lantaldeak sortzea.

22. artikulua.– Osoko Bilkura eta batzordeak osatzen dituzten pertsonak izendatzea.

1.– Eusko Jaurlaritzaren Sailak ordezkatzeko dituzten kideak Sail horien titulartasuna dutenek izendatuko dituzte.

2.– Foru Aldundiak ordezkatzeko dituzten kideak korporazio bakoitzaren funtzionamendu-arauei jarraiki izendatuko dira.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Udalak ordezkatzeko dituzten kideak Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) izendatuko ditu.

4.– Elkartze-mugimenduaren ordezkari izango diren kideak beren jardun-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa duten federazioek eta elkarteek izendatuko dituzte lehentasunez. Horretarako, familia-politikaren arloan eskumena duen zuzendariak egingo die deialdia sektoreko federazioei eta elkartei dagokion kidea izenda dezaten. Deialdia egin eta hilabeteko epean izendatzen ez bada, familia-arloan eskumena duen sailburuak izendatuko du kidea.

5.– Erakunde sindikalak, enpresa-erakundeak, kooperatibak eta profesionalen erakundeak ordezkatzeko dituzten kideak aipatutako erakundeek ordezkatzeko dituzte.

Erakunde horiek Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran aurkeztuko dute zuzenean Osoko Bilkuran izango dituzten ordezkarien izendapena.

6.– Idazkaria familiaren arloan eskumena duen Sailaren titulartasuna duenak izendatuko du bere sailari atxikitako teknikarien artetik.

7.– Osoko Bilkura eta Familiaren Euskal Kontseiluan sartuta dauden batzordeak osatuko dituzten kideak izendatzeko orduan, ahaleginak egingo dira gizon eta emakume kopurua berdintsua izan dadin, eta gizon-emakume horiek prestakuntza, gaitasun eta trebakuntza egokiak izan ditzaten, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

23. artikulua.– Osoko Bilkurako eta batzordeetako kideen agintaldia.

1.– Familiaren Euskal Kontseiluko kideen agintaldiaren iraupena 4 urtekoa izango da, eta agintaldiaren amaieran berriz aukeratu ahal izango dituzte. Adierazitako epea igaro ondoren, kideek beren eginkizunak betetzen jarraituko dute, ondorengo izendapenak ondorioak izan arte.

2.– Osoko Bilkurako kideen agintaldia honako kasu hauetan amaitu ahal izango da iraunaldiaren amaieraren aurretik:

a) Kidea izendatu zuen administrazio publikoak, gizarte-erakundeak, sindikatuak, enpresa-erakundeak, kooperatibak edo profesionalen erakundeak erabakita agintaldia baliogabetzen edo eteten denean.

b) Karguagatik izendatutako kideen kasuan, izendatzeko arrazoia izan zen kargua galtzen denean.

c) Uko egitea, Osoko Bilkurako presidenteari aurkeztu zaiona.

d) Heriotza.

e) Epaileak kargu publikoak betetzeko gaitasungabetzea edo eginkizungabetzea dakarren ebazpen judizial edo administratibo irmoa hartzen duenean.

3.– Aurreko idatz-zatian aurreikusitako kasuetan, ordezkatu beharreko kidearen agintaldia betetzeko falta den denborarako izango dira ordezkapenak.

24. artikulua.– Ordezkapenak.

Administrazio publikoek eta gizarte-, erakunde- eta enpresa-erakundeek, kooperatibek eta profesionalen erakundeek Osoko bilkurako eta batzordeetako beren ordezkarien ordezkoko izendatu ahal izango dituzte, eta ordezko horiek beteko dituzte ordezkarien eginkizunak horiek ez daudenean. Ordezkoen izendapena ordezkarien izendapenarekin batera egingo da eta izendatzeko sistema bera aplikatuko da.

25. artikulua.– Osoko Bilkurako eta batzordeetako kideen eskubideak.

Familiaren Euskal Kontseiluko kideek honako eskubide hauek dituzte:

a) Hitzarekin parte hartzea, botoa emateko eskubideaz baliatzea, kide anitzeko organoen bilkuretan boto partikularra ematea, eta botoaren esanahia eta arrazoiak adieraztea.

b) Parte hartzen duten kide anitzeko organoan aztertzen diren gai buruzko informazioa izatea.

c) Parte hartzen duten kide anitzeko organoetarako ezohiko deialdia eskatzea.

d) Proposamenak eta iradokizunak aurkeztea gai-zerrendan sartzeko, parte hartzen duten kide anitzeko organoetan erabakiak hartzeko edo gai jakin bat aztertzeko.

e) Familiaren Euskal Kontseiluaren mandatuz joaten diren ekitaldietan Familiaren Euskal Kontseilua ordezkatzea; nolahi ere, presidenteari dagokio ordezkartzatza-lesleipen orokorra.

f) Bilkuretarako deialdiaren eta bilkuren gai-zerrendaren berri izatea organo bakoitzerako ezarritako aurretiaz, eta gai-zerrendan agertzen diren gai buruzko dokumentuak eta informazioa, eta aurreko bilkurako akta izatea.

g) Galde-eskeak egitea.

26. artikulua.– Osoko Bilkurako eta batzordeetako kideen betebeharrak.

Familiaren Euskal Kontseiluko kideek honako betebeharrak dituzte:

a) Parte hartzen duten kide anitzeko organoen bilkuretara joatea. Urte beraren barruan justifikatu gabe elkarren segidako bi bileratara edo bereizitako hiru bileratara joan ezean, kidea izendatu zuena kargutik kentzea proposatzeko komenigarritasuna aztertuko du nahitaez Osoko Bilkurak.

b) Bidezko isiltasunarekin eta zuhurtziarekin jardutea, aztertzen diren gaien izaerak hori eskatzen duenean eta, bereziki, gai horiek ohore-eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea eraginpean hartzen dituztenean.

c) Arau honi eta, hala badagokio, arau hau garatzeko onartzen diren jarraibideei eta aginduei jarraiki jardutea.

27. artikulua.– Egindako lanari egotzi dakizkiokeen gastuengatik konpentsazioa.

1.– Familiaren Euskal Kontseiluko kide izateagatik ez da ordainsaririk jasoko; nolana ere, Kontseiluko kideek ez ezik batzordeetan parte hartzen duten kideek ere, konpentsazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea izango dute, kide anitzeko organo horiek garatzen dituzten bileretara joateagatik, eta konpentsazio hori bilera horietan parte hartzeak edo bilera horietara joateak eragin ditzakeen bidaiei dagozkien kalte-ordainekin bateragarria izango da.

2.– Bertaratzeagatik konpentsazioak nahiz bidaiei dagozkien kalte-ordainak zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan aurreikusitako baldintzetan eta mugekin jasoko dira.

3.– Familiaren Euskal Kontseiluan sartu edo parte hartu beharra administrazio publikoan betetzen den karguak edo lanpostuak eragiten duenean, ez da ezein kasutan diru kopururik jasoko.

28. artikulua.– Funtzionamendu-bitartekoak.

Bere eginkizunak behar bezala betetzeko, familia-alorrean eskumena duen zuzendaritzak bere baliabide materialekin eta pertsonalekin erantzungo dio Familiaren Euskal Kontseiluari.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko familia-arloko erakunde-antolaketa arautzen duen 2003ko irailaren 17ko Agindua (Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena) eta orokorrean, Dekretu honetan ezarritakoari aurka egiten dion maila bereko edo beheragoko xedapen oro.

2012ko maiatzaren 9a, asteazkena

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Ordezko araubidea

Dekretu honetan eta Familiaren Euskal Kontseiluak onartzen dituen funtzionamendu-arauetan xedatzen ez den orotan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoei buruz ezartzen dena aplikatuko da.

Bigarrena.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 17a.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.